# HAITZULO ARTIFIZIALAK
# CUEVAS ARTIFICIALES



## Erlijiozkotasun-Guneak Araban

## Espacios de Religiosidad en Alava

# HAITZULO ARTIFIZIALAK
# CUEVAS ARTIFICIALES




EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz 2004

Arabako ekialdetik mendebaldera kokatuta dauden haitzulo artifizialak aspalditik, ia orain dela 200 urtetik, izan dira deigarriak ikerlari askorentzat. Askoren ustetan antzina sortutako haitzuloak dira, eta berauen jatorriari eta funtzionaltasunari buruzko iritzi desberdin ugari eman dira. 1885ean kokatu behar da haitzulo artifizialen inguruko lehengo testigantza, R. Adán de Yarza ikerlariaren eskutik. XX. mende hasieran hizpide izan zituzten J. Cabré eta H. Breuil-ek, edo zehazkiago esateko, haitzulo batean aurkitutako eskultura bati buruz hitz egin zuten aipatu bi ikerlariek; neolitikoan edo feniziarrak gurean izan ziren garaian kokatu zuten haitzuloen jatorria. Baina 1920ko hamarkadan landu zituzten T. Aranzadik, J.M. Barandiaranek eta E. Egurenek haitzulo artifizialen jatorriari eta zergatiari buruzko lehenengo teoriak eta, horrekin batera, haitzuloak katalogatzeko lehenengo lana aurkeztu zuten. Eta ikerketa horiek oinarrian hartuta, 1960. urtean eta ondorengoetan A. Llanosek eta ikerlari-talde batek haitzulo artifizial guztiak katalogatzeko lanari ekin zioten eta planimetria berriak landu zituzten; jada ezagunak ziren haitzuloak eta oraindik ondo ezagutzen ez zirenak (horietara iristeko baldintzak zailak ziren) ere barne hartu zituzten eta, horrez gain, haitzuloen barruan aurkitutako testigantza grafikoak ezagutzera eman zituzten. Zenbait urte beranduago ekin zien J.M. Barandiaranek haitzuloen inguruko indusketa-lanei eta emaitza bikainak lortu gainera. Beranduago, 1976-1978 urteen bitartean, Montico de Charratu delakoan indusketa-lan gehiago egin ziren A. Baldeón, E. Berganza, eta E. Garcíaren zuzendaritzapean; 1988. urtean, halaber, Corro udalerriko Los Moros haitzuloen in-



Los conjuntos de cuevas artificiales que cruzan Álava de oriente a poniente, han llamado la atención de numerosos investigadores desde hace aproximadamente doscientos años. Algunos llegaron a adjudicarles remotos orígenes. Con diferentes versiones sobre su origen y funcionalidad. Uno de los primeros testimonios, fue el de R. Adán de Yarza en 1885. A principios del siglo XX, J. Cabré y H. Breuil hicieron referencia de ellas, o mejor dicho sobre la escultura de una de las cuevas, con consideraciones que las remontaban a épocas neolíticas o fenicias. Serían las primeras investigaciones emprendidas en los años 20, por T. Aranzadi, J. M. de Barandiarán y E. Eguren, las que, aparte de presentar un primer trabajo general de catalogación, avanzaron unas consideraciones sobre el porqué de su existencia. Partiendo de los resultados de



*Jose Miguel Barandiaran Montico de Charratu izeneko haitzetan indusketan (Albaina).*

*D. José Miguel de Barandiarán, excavando en las Peñas del Montico de Charratu, (Albaina).*



*Askanako haitzak-El Bosque, Markiz.*
*Peñas de Askana-El Bosque, en Marquinez.*

*Las Gobas ingurua (Laño).*
*Zona de Las Gobas, (Laño).*



esta publicación, A. Llanos y un equipo de colaboradores emprendieron, en 1960 y años sucesivos, una labor total de catalogación y levantamiento de nuevas planimetrías, tanto de las cuevas ya conocidas como de las que por su dificultad de acceso no habían sido visitadas, así como de los testimonios gráficos que en ellas se encuentran y que fueron descubiertos durante este programa de investigación. Unos años después J. M. de Barandiarán inició una serie de excavaciones en el entorno de las cuevas obteniendo unos resultados clarificadores. A éstas siguieron otras excavaciones dirigidas por A. Baldeón, E. Berganza, y E. García, entre 1976 y 1978, en el Montico de Charratu, así como la realizada por F. Sáenz de Urturi, en 1988, en las inmediaciones de las cuevas de Los Moros, en Corro. El último trabajo de conjunto fue el llevado a cabo por A. Azkarate, en 1988, como tema de su tesis doctoral.

La documentación de la catalogación de las cuevas, que se ofrece en el CD-Rom interactivo, tiene como base las investigaciones realizadas en los años 60, habiendo sido totalmente revisada, sobre el terreno, en el 2003. Si en lo básico, prácticamente no ha sufrido cambios, si lo ha sido en algunos casos concretos. Por ello, en la documentación gráfica, se incluyen fotografías de los años 60, pudiendo ver el cambio, sobre todo ambiental –recuperación vegetal–, que han sufrido los espacios en estos años. Ello hace que, precisamente por ello, la visita de alguna de estas cuevas es realmente complicada, si bien en otros casos se encuentran perfectamente señalizadas.



*Laño harana. Labar hauetan zulatu ziren haitzulo artifizialak.*

*Valle de Laño, y los acantilados donde se excavaron las cuevas artificiales.*

guruan indusketa-lanak egin ziren F. Sáenz de Urturiren zuzendaritzapean. Gaiarekin lotuta egindako azken lana A. Azkaratek burutu zuen 1988. urtean, bere doktoretza--tesiarekin lotuta.

Haitzuloen katalogazioari buruzko dokumentazioa, CD-Rom elkarreragilean barne hartutakoa, 1960ko hamarkadan egindako ikerketetan oinarrituta dago eta goitik behera berrikusi zen 2003. urtean. Nahiz eta funtsean ez den aldaketa handirik egin, zenbait kasutan datuak moldatu behar izan dira. Hori dela eta, dokumentazio grafikoak 1960ko hamarkadako argazkiak erakusten ditu eta argi eta garbi islatuta geratzen dira denborak aurrera egin ahala espazio horietan izandako aldaketak, batez ere ingurumen-mailako aldaketak (landaredia bereziki). Eta horregatik gertatzen da zaila zenbait haitzulo bisitatzea, beste zenbaiten kasuan modu egokian adierazita egoteaz gain, inolako arazorik ez badago ere.

## LAS CUEVAS ARTIFICIALES

Este tipo de cuevas se desarrollan en varios grupos que, en total de unidades sobrepasan el centenar de cavidades. Un grupo se ubica en la zona de Valdegovía, en el extremo occidental del territorio alavés. Entre éste y el próximo se dan algunas cuevas pero de forma aislada denominándolas como Montes de Vitoria. Otro gran conjunto –el más importante– ocupa la zona central, extendiéndose por las tierras del Condado de Treviño y Montaña Alavesa. Por último, en el extremo occidental de la Rioja Alavesa, se encuentran algunos ejemplares aislados.

Estos conjuntos presentan algunas diferencias en cuanto a su emplazamiento. En la zona de Valdegovía aparecen sobre la cuenca del río Omecillo o sobre alguno de sus afluentes (Arroyos de Pinedo, Mioma, Valdelagua y San Martín). Salvo algunos casos concretos las cavidades de esta zona son perfectamente visibles desde cierta distancia y están generalmente en zonas de paso o caminos naturales. El otro gran conjunto de la zona este –Treviño y Montaña Alavesa– presentan un aspecto diferente, ya que da la sensación de haberse buscado unos lugares ocultos y fuera de los lugares de paso habituales. Ninguna cavidad se encuentra directamente emplazada en la cuenca del río Ayuda, estando todas en afluentes con cuencas muy cerradas (Arroyos de Camen, Granao, Barrunta, San Juan, Eskorrerana, Lucia, Gurtupiarana, Sasualde, El Molino) y en lugares muy escondidos o con muy escasa visibilidad desde las zonas abiertas.

Para su excavación se aprovecharon estratos de rocas de fácil labra, calizas blancas



*Omecillo ibaiaren arroa, Gobiarango haitzulo artifizialen kokalekua.*

*Cuenca del río Omecillo, espacio de las cuevas artificiales de Valdegovía.*

## HAITZULO ARTIFIZIALAK

Multzo desberdinak osatzen dituzte haitzulo artifizialek, baina orotara, ehundik gora barrunbe aurki daitezke Araban. Multzo bat Gobiaran inguruan dago, Arabako lurraldearen mendebaldeko muturrean. Aipatutako multzoaren eta hurrengoaren artean hainbat haitzulo bakartu aurki daitezke eta Gasteizko Mendiak izenez ezagutzen dira. Beste multzo zabal bat, garrantzitsuena, erdialdean kokatuta dago, Trebiñoko Konderriko eta Arabako Mendialdeko lurretan hain zuzen. Amaitzeko, Arabako Errioxaren mendebaldean beste zenbait haitzulo edo barrunbe aurkitu dira, hauek ere bakarturik.

Aipatutako multzoen kokapenari erreparatuz, hainbat desberdintasun ikus daitezke. Gobiaran inguruko multzoak Omecillo ibai--arroan edo bere adar baten inguruan daude kokatuta (Pinedo, Mioma, Valdelagua eta San Martin errekak). Salbuespenak salbuespen, Gobiaran inguruan dauden barrunbeak urrutitik ikusten dira eta igarobideetan edo bide naturaletan daude kokatuta. Ekialderago

eocenas en el caso de las cuevas de Valdegovía y en calizas dolomíticas y margosas terciarias, para los conjuntos de Treviño y Montaña Alavesa, así como bancos de areniscas en la Rioja Alavesa.

## ¿DÓNDE SE ENCUENTRAN?

Aunque el conjunto de cuevas artificiales es muy extenso, ya que existen 127 ejemplares repartidos por valles y barrancos, en una franja que se extiende de este a oeste, –que quedan todas ellas catalogadas en el CD-Rom adjunto–, existen algunos grupos de especial interés, que son los que se relacionan en este folleto.

*Barojako haitzuloen multzoa.*

*Conjunto de las cuevas de Baroja.*



–Trebiño eta Arabako Mendialdea– dagoen beste multzo garrantzitsua desberdina da, izan ere, badirudi ezkutuko lekuetan eta ohiko igarobideetatik urrun kokatu nahi izan zituztela. Ez dago barrunberik Ayuda ibai--arroan, bai ordea Ayuda ibaiaren hainbat adarretan, arro itxiak dituzten adarretan hain zuzen (Kamen, Granao, Barrunta, San Juan, Eskorrerana, Lucia, Gurtupiarana, Sasualde eta El Molino errekak) eta ezkutuko lekuetan edo zona irekietatik ikusteko oso zailak diren lekuetan.

Haitzulo artifizialak sortzeko, lantzeko errazak ziren haitz-geruzak aukeratu ziren; Gobiarango haitzuloen kasuan kare-harri zuri eozenoak aukeratu ziren; Trebiño eta Arabako Mendialdean aurki daitezkeen haitzuloen kasuan, berriz, kare-harri dolomitikoak eta margosa tertziarioak erabili ziren, eta hareharri bankuak aukeratu ziren, azkenik, Arabako Errioxako haitzulo artifizialetan.

## NON DAUDE HAITZULO ARTIFIZIALAK?

Arabako ekialdetik mendebaldera aurki daitezkeen haitzulo artifizialak asko badira ere –127 daude haran eta sakanetan banatuta eta guztiak katalogatu dira CD-Romean–, horien artetik zenbaitek interes berezia dute eta honako liburuxka honetan deskribatu dira.

Mendeak joan eta mendeak etorri, haitzulo guztietan egin dira aldaketa handiak –garai bakoitzean zegokion erabilerara egokitzeko– eta, ondorioz, kasu askotan ezinezkoa da zehaztea haitzuloek hastapenetan zuten egitura. Hala eta guztiz ere, aurkitutako elementuak nahikoa dira haitzulo artifizialen jatorria eta funtzioa jarduera erlijiosoarekin



*Los Moros haitzuloak (Corro).*
*Cuevas de Los Moros, (Corro).*

Todas estas cuevas han sufrido importantes modificaciones y adaptaciones, para los distintos usos a que fueron sometidas a lo largo de los siglos, con lo que en muchos casos es difícil conocer cual fue su estructura primitiva. Sin embargo y a pesar de ello, quedan suficientes elementos como para reconocer su origen y funciones en una actividad religiosa, que hacen de estas cuevas uno de los primeros testimonios de la cristianización de esta parte del País Vasco.

## VALLE DE VALDEGOVÍA

Dentro de este Valle se destacan los conjuntos de Corro y Pinedo. En ambos casos las cuevas se excavaron en unos peñascos aislados. Para llegar a ellas existen unos indicadores en carretera, que facilitan su localización.

lotuta zegoela baieztatzeko. Horrela, Euskal Herriko zati honetan bizitako kristautze-prozesuaren lehenengo testigantza gisa aurkez daitezke haitzulo artifizialak.

## GOBIARANGO HARANA

Corro eta Pinedokoak dira haran honetan aurkitutako multzo garrantzitsuenak. Bien kasuan haitz bakartuak aukeratu ziren haitzuloak egiteko. Errepidean bertan adierazten da bertara iristeko zein bide aukeratu.

### CORROKO MULTZOA

"Cuevas de los Moros" izenez ezagutzen dira. Bi barrunbe dira eta elkarren artetik nahiko hurbil dituzte sarrerak. Mendebalderago dagoen barrunbea espazio bakar batek osatzen du; bao batetik sartzen da eta bertan zegoen kokatuta haitzulora sartzeko atea –kontza batean biratzen zen eta barrutik trangatzen zen egurrezko orri bat zuen–. Bi leiho ditu, bata bestearen parean, eta gaur egun oraindik ikus daitezke burdinsarea jartzeko erabili ziren zuloak. Ganga-formako sabaia du, arku itxurako bi nerbiorekin. Haitzuloaren

### CONJUNTO DE CORRO

Popularmente se las conoce como Cuevas de los Moros. Son dos las cavidades, cuyas entradas se encuentran a escasa distancia una de otra. La más occidental es un espacio único a la que se accede por un vano donde se encajaba la puerta de entrada mediante una hoja de madera que giraba en un pivote y que se atrancaba interiormente. Tiene dos ventanas en paredes opuestas, de las que en una se conservan los agujeros que sirvieron para recibir una verja. Su techo es abovedado, con dos nervios en forma de arcos. En el fondo existe una hornacina. Conserva varias sepulturas, una de ellas bajo arcosolio.

A su lado está la otra cueva. Se puede entrar en ella por dos puertas que dan acceso a una habitación única, pero que en origen eran dos espacios independientes, habiéndose unido en cierto momento. Estas puertas presentan dos tipos de cierre diferentes; una mediante giro pivotante y la otra mediante tablas que se encajaban en acanaladuras talladas en las jambas. Sobre una de las puertas se labró una acanaladura que hacia de vierteaguas. Una pequeña ventana facilitaba la



*Los Moros 2 haitzuloa (Corro).*
*Cueva de Los Moros 2, (Corro).*



*Los Moros I haitzuloa (Corro).*
*Cueva de Los Moros I, (Corro).*

barruan horma-konka bat dago. Gainera, zenbait hilobi ere gorde dira eta horietako bat arkosolioaren azpian.

Barrunbe horren alboan dago beste haitzuloa. Bi ate ditu eta gela bakar baterako sarbidea dira biak, eta nahiz eta hastapenetan bi espazio independente izan, une jakin batean biak elkartu ziren. Ateetan bi itxiera-mota desberdin daude: ardatz-formako bira egitea eskatzen duena alde batetik eta, bestetik, janbetan tailatutako arteketan sartzen ziren taulak dituena. Ate batean arteka bat egin zen, isurki funtzioa betetzeko. Leiho txiki baten bidez lortzen zen barrunbea aireztatzea. Hormetan banku edo zapalda jarraiak tailatu ziren. Pareta batean arkosolio landuak ikus daitezke. Hormetan tailatutako horma-zuloek zurezko zorua indartzeko balio zuten. Ezkerraldeko atearen janban gurutze bat landu zen, eta berau dugu bakarra orain deskribatzen ari garen haitzuloetan eta Pinedoko haitzuloetan. Aldaketa asko jasan ditu haitzuloak, batez ere joan den mendean haitzuloa etxebizitza gisa erabili zuen saltzaile ibiltari batek egindakoak.

ventilación. A lo largo de sus paredes se tallaron unos bancos o repisa corridos. En una de las paredes se crearon unos arcosolios muy bien trabajados. Una serie de agujeros o mechinales tallados en las paredes sirvieron para sustentar un piso de madera. En la jamba de la puerta de la izquierda, se labró una cruz, caso único tanto en estas cuevas como en las de Pinedo. Las distintas modificaciones realizadas en esta cueva, se deben a un vendedor ambulante que en el pasado siglo la utilizó como vivienda.



*Santiago I haitzuloa (Pinedo).*
*Cueva de Santiago I, (Pinedo).*



*Santiago haitzuloak (Pinedo).*
*Cuevas de Santiago, (Pinedo).*

## PINEDOKO MULTZOA

Pinedo herritik oso hurbil dagoen haitz bat aukeratu eta bertan egin zen Santiago izenez ezagutzen diren haitzuloak. Baseliza moduan erabiltzen ziren garaian jarri zitzaien Santiago izena. Interes handiko multzo bat da eta hainbat gelek osatzen dute. Bi ate daude bi gela desberdinetara sartzeko, bi gelak arku baten bidez elkartuta geratzen direlarik. Kupula-formako sabaia du eta sabaiaren altuera desberdina da espazioaren arabera, 3,50 metroko altuera hartzen duelarik espazio nagusian; zulo bat ikus daiteke goialdean, sabaileiho baten antzera, eta horren bitartez komunikatzen da kanpoaldearekin. Horrez gain, sarreraren gaineko horman beste leiho bat ikus daiteke. Beste gelarekin komunikatzen duen arkuaren gainean horma-konka bat dago. Bi maila handik betetzen dute plantaren zati handi bat –litekeena da eserleku gisa erabili izana– eta kanpo-balkoi bateraino iristen dira; balkoiaren ertzean baranda jartzeko zuloak ikus daitezke. Zapalda horrek beste haitzulo txiki batera ematen du. Ipar-ekialdeko zatian, haitzulorako sarreren gainetik, horma-zuloak ikus daitezke; horma-zulo horiek erabili ziren haitzulora itsatsita beste eraikin baten habeak jartzeko, eta baliteke haitzulo-multzoa baseliza moduan erabili zen garaikoa izatea (haitzean zulatutako barrutia txikia zela eta zabaltzeko beharraren ondorioz).

## CONJUNTO DE PINEDO

Muy cercana al pueblo de Pinedo, una peña se utilizó para labrar las cuevas que se denominan como de Santiago, advocación que tuvo este lugar cuando se dedicó culturalmente como ermita. Es un conjunto de gran interés que agrupa varias estancias. Por dos puertas se accede a dos estancias diferentes unidas por un arco. Tienen techo en forma de cúpula, variando su altura en los dos espacios, llegando a los 3,50 metros en la principal, con un agujero en su parte alta que comunica con el exterior a manera de claraboya. También existe otra ventana en la pared sobre la entrada. Encima del arco que comunica con la otra habitación existe una hornacina. Parte de planta está ocupada por dos grandes peldaños, –que se pudieron utilizar como asiento–, que conducen a una especie de balcón exterior, en cuyo borde se aprecian unos agujeros para colocar una barandilla. Por esta repisa se pasa a otra pequeña cueva. En la parte exterior del noreste, por encima de las entradas a la cueva, se ven unos mechinales utilizados para haber colo-



## TREBIÑO ETA ARABAKO MENDIALDEA

Zona honetako haitzulo-multzoaren artetik –102 barrunbe daude haran desberdinetan kokatuta–, Faidu, Laño eta Markizekoak dira bereziki azpimarragarriak. Hala ere, barrunbe garrantzitsuenak bakarrik deskribatuko dira jarraian, eta gainerako guztiak CD-Rom elkarreragilean agertzen dira.

### FAIDUKO MULTZOA

Faidu herriaren inguruan hiru haitzulo--multzo aurki daitezke, hain zuzen: San Julian eta San Migel, Kruzia eta Peñako Andre Maria. Bertara iristeko herriaren irteeran (ekialdetik) kokatutako seinaleztapena jarraitu besterik ez da egin behar.

Haranaren eskuinaldean daude San Julian 2 eta San Migel haitzuloak, Kamen errekak bere ibilbidea egiten duen inguruan hain zuzen. Bi haitzuloetarako sarrerak elkarren artetik oso gertu daude. Eskuineko atea San Julian 2 haitzuloarena da eta ezkerrekoa San Migelena. San Julian 2 haitzuloa da multzo osotik barrunberik handiena. Argi eta garbi nabarmentzen da atea, eta erraz bereizten dira atearen itxiera-sistemak eta bi leiho txiki. Ganbera nagusiak oin angeluzuzena eta ganga-formako sabaia ditu; albo batean dagoen ganberak oin zirkularra du eta arrautza-oskol formako ganga du sabaian; puntu erdiko arkuko ate batek elkartzen ditu bi ganberak. Atearen ezkerraldean horma-konka edo aldare bat dago, erlikiak jartzeko beheragune bat ikusten delarik. Haitzuloak bete zuen funtzio erlijiosoaren froga edo testigantza dira horman grabatutako gurutze bat eta zenbait graffiti. Pertsona aszetiko batek erre-



cado el envigado de alguna construcción adosada a las cuevas que quizá corresponda a la época en que todo el conjunto se utilizó como ermita, con el fin de ampliar la pequeña capacidad del primitivo recinto horadado.

## TREVIÑO Y MONTAÑA ALAVESA

De todo este grupo de cuevas, que entre los diferentes valles suman un total de 102 cavidades, se destacan los conjuntos correspondientes a los grupos de Faido, Laño y Marquinez. Aun así, dentro de cada uno de estos lugares, solamente se citan las cavidades más importantes, pudiendo conocer el resto en la consulta del CD-Rom interactivo.





Ezkerrean, Peñako Andre Mariaren baseliza (Faidu).
Izquierda. Ermita de Nª. Sª. de la Peña, (Faido).

Behean ezkerrean, San Julian eta San Migel haitzuloak (Faidu).
Abajo, izquierda. Cuevas de S. Julián y S. Miguel, (Faido).

Behean, Peñako Andre Mariaren baseliza. Beheko solairuko labar-eliza (Faidu).
Abajo. Ermita de la Virgen de la Peña. Iglesia rupestre en la planta baja, (Faido).

tirorako aukeratu zuen haitzuloa eta orain gutxi arte erabili da otoitzerako leku gisa.

Txikiagoa da San Migel haitzuloa: oin obala eta labe-ganga ditu eta sarrera eta itxiera-sistemak ondo definituta ikusten dira.

Peñako Andre Maria baselizara igotzen den bidearen ezkerraldean daude Kruziako haitzuloak. Bi haitzulo txiki dira. Hainbat hilobi kontserbatu dira zoruan, bai eta barruti eremutar gisa erabili ziren garaiko hainbat graffiti ere.

Peñako Andre Maria baseliza da multzo garrantzitsuena: baselizaren barrualdean eta kanpoaldean haitzulo gehiago daude eta horietako zenbait basilika-motakoak dira. Bide aldapatsu batetik iristen da haitzera itsatsita

## Conjunto de Faido

Son tres los grupos de cuevas que existen en los alrededores de este pueblo; San Julián y San Miguel, Kruzia y Virgen de la Peña, pudiéndose llegar hasta ellas siguiendo los indicadores colocados a la salida del pueblo, por su lado este.

Las cuevas de San Julián 2 y San Miguel se localizan en la parte derecha del valle por el que discurre el arroyo Camen. Las dos entradas se encuentran muy próximas entre sí. La puerta de la derecha es la de San Julián 2 y la de la izquierda la de San Miguel. La primera es la mayor cavidad de este conjunto, con una puerta bien marcada donde se definen perfectamente los sistemas de cierre, así como dos pequeñas ventanas. Tiene una cámara principal de planta rectangular y techo abovedado y otra lateral de planta circular con techo de bóveda de cascarón, unidas ambas por una puerta de arco de medio punto. A la izquierda de esta puerta existe una pequeña hornacina o altar de nicho con un rebaje para las reliquias. Una cruz patada,





dagoen eraikin honen ateraino eta elementu gotikoak ikus daitezke atean. Kanpoaldean bi haitzulo daude: baselizaren behealdean bata eta baselizaren teilatuaren gainean bestea; pasabide bat dago bertara iristeko.

Hala ere, baselizaren barruan dauden bi haitzuloak dira garrantzitsuenak. Sarrerako atea zeharkatu ondoren, behe-solairuan, dago lehenengo haitzuloa; zenbait aldaketa egin dira bertan eta gaur egun ere, oraindik, gurtzeko funtzioa betetzen du. Oin angeluzuzeneko nabe bakarra eta kanoi-ganga ditu, eta horren guztiaren oinetara koru bat landu zen eta oin angeluzuzena eta kanoi-ganga

grabada, y varios graffitis en las paredes son testimonios de su función religiosa. Esta continuidad, de su uso como lugar de oración, la tuvo en épocas recientes al servir de retiro a una persona con un cierto ideal ascético.

La de San Miguel es de menor tamaño, con planta oval y bóveda de horno, quedando bien marcados su entrada y los sistemas de cierre.

Las cuevas de Kruzia, se encuentran a la izquierda del camino que asciende a la ermita de la Virgen de la Peña. Son dos pequeñas cuevas, en las que se conservan algunas sepulturas en su suelo, así como graffitis del momento de su utilización como recintos eremíticos.

El conjunto más importante es el de la ermita de Nuestra Señora de la Peña, ya que en el interior e incluso en el exterior existen varias cuevas, alguna de tipo basilical. Un pendiente sendero lleva hasta la puerta de la edificación adosada a la peña, que tiene elementos góticos. En el exterior existen dos cuevas, una en la parte inferior y otra sobre el tejado de la ermita, a la que puede accederse por una pasarela.

*Goian, Peñako Andre Mariaren baseliza. Korua beheko solairuko elizan (Faidu).*

*Arriba. Ermita de la Virgen de la Peña. Coro en la iglesia de la planta baja, (Faido).*

*Eskuinean, Peñako Andre Mariaren baseliza. Lehenengo solairuko eliza (Faidu).*

*Derecha. Ermita de la Virgen de la Peña. Iglesia en la planta primera, (Faido)*



dituzten beste bi gela; horietako bat bataiategi gisa erabili zen, eta nitxoko aldare bat eta lurrean egindako hainbat hilobi ikus daitezke. Gaur egun haitzean tailatuta ikus daitekeen erretaula XVIII. mendekoa da eta berau egiteko bertan kokatuta zegoen antzinako basilikaren ganga suntsitu zen. Hortxe dago Peñako Andre Mariaren irudia, Andre Mari motakoa, XIII. edo XIV. mendekoa. Sarrerako atearen parean aldarearen gainean margotutako erretaula ikus daiteke: kalbarioa da gai nagusia eta Jaungoikoa ageri da gangaren goialdean. Aipatutako erretaula ezkutuan egon zen 1985. urtera arte; behin aurkitu ondoren zaharberritu egin zuten.

Lehen-solairuan beste haitzulo bat dago, eta nahiz eta zenbait aldaketa egin –hala nola bi sarbide berri, gaur egungo hiru sarbideak osatuz–, VI. edo VII. mendeetan eraikitako elizen egitura bereiz daiteke. Zati nagusian abside-formako espazio bat dago, erdizirkularra, eta puntu erdiko arku bat eta arrautza-oskol formako ganga ditu, eta haitzean bertan landutako aurre-ate bat eta aldare monolitikoa ikus daitezke. Alboetako batean aurki daitezke, bestetik: gela bat, oin angeluzuzena





*Horma-erretaula margotua Peñako Andre Mariaren baselizan (Faidu).*

*Retablo mural pintado en la ermita de la Virgen de la Peña, (Faido).*

Sin embargo las dos que se encuentran en su interior son las más importantes. Tras atravesar la puerta de entrada, en la planta baja, se encuentra la primera de ellas, que es la que con ciertas modificaciones, sigue manteniendo funciones de culto. Tiene una nave única de planta rectangular y bóveda de cañón a cuyos pies se labró un coro, y dos habitaciones laterales de planta rectangular y bóveda de cañón, de las que una se utilizó como baptisterio, y en las que existe un altar de nicho, así como algunas sepulturas excavadas en el suelo. El actual retablo tallado en la roca, en el siglo XVIII, destruyó el ábside de la primitiva basílica. En el se encuentra la imagen de Nuestra Señora de la Peña, en una imagen del tipo de Andra Mari, de los siglos XIII o XIV. Enfrente de la puerta de entrada se puede contemplar un retablo pintado sobre la mesa del altar, que desarrolla

eta inpostaren gainean jarritako kanoi-ganga –jatorrizko atea desagertu egin da– eta tamaina txikiagoko zulo bat dituena. Haitzuloaren zoruan hainbat hilobi daude. Alboko gela-hondoan elementu arboriformeak ikus daitezke gorriz margotuta eta absidearen ondoan dagoen nabearen parean ere antzeko elementuak ikus daitezke. Paretetan, modu berean, hainbat graffiti daude grabatuta.

## Lañoko Multzoa

Haran bakar batean kokatutako haitzulo-multzo handiena da: orotara hogeita zortzi haitzulo aurki daitezke bertan. Laño ibaia bitan zatitzen duten labar harkaiztsuen bi alboetara daude kokatuta. Ezkerraldeko isurialde hidrografikoan Gobas izeneko multzoa dago eta eskuinaldean, berriz, Santorkaria izenez ezagutzen dena. Multzo honetako haitzulo guztien artetik zenbait aukeratu dira bakarrik –egitura konplexua dutenak hain

*Haitzean egindako erretaula. Peñako Andre Mariaren baselizako beheko solairuko eliza (Faidu).*

*Retablo labrado en la roca. Iglesia en la planta baja de la ermita de la Virgen de la Peña, (Faido).*







*Peñako Andre Maria (Faidu).*

*Virgen de Nª. Sª de la Peña, (Faido).*

la temática de un calvario, con Dios Padre presidiéndolo, en la parte superior abovedada. Este retablo permaneció tapiado y oculto hasta su descubrimiento en 1985, habiendo sido restaurado posteriormente.

En la primera planta, se conserva otra cueva que, a pesar de las modificaciones sufridas –como la apertura de dos nuevos accesos de los tres que posee actualmente–, permite reconocer la estructura de lo que fueron estas iglesias de los siglos VI o VII. Tiene planta rectangular con techo de bóveda de cañón. La cabecera tiene un espacio absidal, semicircular, con arco de medio punto y bóveda de cascarón, con canceles y altar monolítico labrados en la misma roca. En uno de los laterales existen: una habitación también de planta rectangular con bóveda de cañón sobre imposta, de la que ha desaparecido su puerta original, así como otro hueco de menor tamaño a su lado. Varias sepulturas se encuentran excavadas, en el suelo de esta cueva. Sobre la pared del fondo de la habitación lateral se encuentra pintado en rojo, un tema arboriforme, teniendo otros temas semejantes en el frente de la nave junto al ábside. Algunos graffitis se grabaron sobre las paredes.



zuzen–, baina labar harkaiztsuen oinarrian haitzulo txiki gehiago daude, garai batean labar-herri honetan bizi ziren eremutarrek gelaxka gisa erabili zituztenak.

Gobas zonari dagokionez, Goba 3 eta Goba 5 izeneko haitzuloak dira bereziki azpimarragarriak. Goba 3 haitzuloaren mendebaldeko zatia bakarrik kontserbatu da, haitz-askatze batek gainerako guztia desagerrarazi baitzuen; horrela, luzetarako ebaki bat ikus daiteke bertan. Hala ere argi eta garbi bereiz daiteke haitzuloaren egitura. Oin angeluzuzeneko eliza zen, ganga kontrajarriak eta parpain-arkuen gainean absideak dituena, bai eta banku jarrai bat ere. Oin zirkularreko abside bat du eta garaipen-arku bat, horman itsatsitako arrautza-oskol formako ganga eta aldare monolitikoarekin; guztia haitzean landua. Gaur egunera bitartean kontserbatu den kontragangaren zatiak argi adierazten du garai batean espazio zirkularra izan zela, arrautza-oskol formako ganga zuena. Kontserbatutako horman oin lauangeluarra eta ganga-formako sabaia zuen ganbera bat egin zen, euskarria ganberaren horma batera itsatsita zuena. Inskripzioak erakusten dituzten zenbait graffiti daude. Zoruan hainbat hilobi zeuden.

Zertxobait hegoalderago eta deskribatu berri den haitzulotik oso gertu Goba 5

*Haitzebaki harritsua eta aire-haitzuloa Las Gobas inguruan (Laño).*

*Cantil rocoso y cueva aérea en la zona de Las Gobas, (Laño).*



## Conjunto de Laño

Es ésta la mayor agrupación de cuevas concentradas en un valle concreto, sumando un total de veintiocho ejemplares. Se distribuyen a ambos lados de los escarpes rocosos que parte en dos el río Laño. En la vertiente hidrográfica izquierda se desarrolla el conjunto de las Gobas, en tanto que a su derecha lo está el de Santorkaria. De todas estas cuevas se citan únicamente alguna de las que por su estructura más compleja merecen destacarse, existiendo a lo largo de la base de los acantilados rocosos, otras pequeñas cuevas que sirvieron como celdas de los eremitas que poblaron este pequeño pueblo rupestre.



*Labar-eliza. Las Gobas 3 haitzuloa (Laño).*
*Iglesia rupestre. Cueva 3 de Las Gobas, (Laño).*



*10. haitzuloa. Las Gobas (Laño).*
*Cueva 10. Zona de Las Gobas, (Laño).*

haitzuloa dago. Nahiz eta lur-jauzi baten ondorioz aurrealdeko horma desagertu, haitzulo honen egitura hobeto kontserbatu da. Eliza bat da, oin angeluzuzena eta abside kontrajarriak dituena; albo batean gela bat du, Goba 3 haitzuloarenaren antzekoa. Eliza horretan graffiti erlijioso ugari kontserbatu dira, sinbolismo kristauaren isla diren gai zoomorfoak eta bestelakoak irudikatzen dituztenak. Elizaren zorua hilobiz josita dago.

De la zona de las Gobas merecen destacarse las Goba 3 y Goba 5. Ambas se utilizaron como iglesias, aunque en su conservación y estructura difieren algo. De la Goba 3 solamente se conserva la mitad occidental ya que un desprendimiento de la roca eliminó el resto, quedando así un corte longitudinal. A pesar de ello se puede reconocer perfectamente su estructura. Se trataba de una iglesia de planta rectangular, con ábsides contrapuestos y bóveda de cañón sobre arcos fajones, y con un banco corrido. Tiene un ábside de planta circular, al que se accede por un arco triunfal, con bóveda de cascarón y altar monolítico adosado a la pared, todo ello labrado en la roca. Igualmente lo que queda del contrábside indica que fue otro espacio circular, con bóveda de cascarón. En la pared conservada se excavó una cámara de planta cuadrangular y techo abovedado,

*Las Gobas 2 haitzuloko atea (Laño).*
*Puerta en la cueva 2 de Las Gobas, (Laño).*





*5. haitzuloaren basilika-oinplanoa. Las Gobas (Laño).*
*Planta basilical de la cueva 5. Las Gobas, (Laño).*

Santorkariako zonari dagokionez, bereziki azpimarragarriak dira, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta, Santorkaria 6, 11, 12, eta 13 haitzuloak. Santorkaria 6 haitzuloaren sarrera maila altuago batean dago eta barrualdeak forma angeluzuzena du eta sabaia bi isurialdeko teilatu baten antzekoa da, luzetara jarritako gailurrarekin. Atearen bi alboetara bina leiho daude, bere garaian aireztatzeko erabili zirenak. Kanpoaldean haitzean tailatutako ildaskak edo urratzeak ikus daitezke; isurki funtzioa bete zuten, barrualdera ura sartzea saihestuz. Garai hartako elizen egitura errepikatuz, oin erdizirkularreko absidea du eta labe-ganga batek estaltzen du; albo batera gela bat du eta gelaren sarreraren bi alboetara bina nitxo daude. Nabearen oinean banku jarrai bat luzatzen da. Asko dira zoruan egindako hilobiak eta kanpoaldean ere beste bi hilobi daude.

Baliteke guztietan interesgarriena Santorkia 11, 12 eta 13 haitzuloek osatutako multzoa izatea. Bertan izandako haitz-jauzi bortitzek haitzuloen zati batzuk desagerrarazi zituzten. Hala ere, haitzulo politak eta erakargarriak dira eta bata bestearekin lotuta daude. Lehenengo haitzuloa da –mendebalderago dagoena– jatorrizko egitura hobekien kontserbatu duena. Bi eliza ditu gutxienez

con un poyo adosado a una de sus paredes. Existen algunos graffitis con inscripciones. En el suelo se excavaron algunas sepulturas.

Algo más hacia el sur y próxima a la descrita, se encuentra la Goba 5. Aunque la pared frontal ha desaparecido por un desprendimiento, su estructura se conserva más completa. Se trata de otra iglesia, con planta rectangular y ábsides contrapuestos, y una habitación lateral, con las mismas características de la anterior Goba 3. En esta iglesia se conservan numerosos graffitis de inscripciones de tipo religioso, temas zoomorfos y de otros tipos con claro simbolismo cristiano. Su suelo está prácticamente horadado por sepulturas.

En cuanto a la zona de Santorkaria sobresalen por sus peculiaridades las de Santorkaria 6, 11, 12, y 13. La de Santorkaria 6, tiene su entrada algo elevada sobre el suelo, que permite el acceso a su interior, que es de forma rectangular con techo que imita a un tejado a dos vertientes con el caballete en sentido longitudinal. Dos ventanas a ambos lados de la puerta sirvieron de ventilación. Exteriormente unos surcos o rozas tallados en la roca sirvieron para actuar como vierteaguas, evitando la entrada de aguas en el interior. Siguiendo la estructura de todas



*Santorkariako aire-haitzuloa (Laño).*
*Cueva aérea en Santorkaria, (Laño).*

eta biltzeko espazioak edo gela eremutar gisa erabilitako espazioak ikus daitezke bertan. Horren guztiaren deskribapen zehatza eta planoak CD-Rom elkarreragilean barne hartu dira. Horma-zulo, helduleku eta hozken hondar ugari daude bertan, mendeak joan eta mendeak etorri eta eraikuntza itsatsi gisa erabili zirela edo bestelako erabilerak izan zituztela adierazten dutenak. Hainbat gela aurki daitezke eta horien zoruetan makina bat hilobi, guztira panteoi kolektibo bat osatuz.

Labar harkaiztsu horren amaieran, eta deskribatutako multzoaren behealdean, bidexka txiki bat dago eta bertatik iristen da Santorkaria zonako azken bi barrunbeetara.

## Markizeko Multzoa

Markiz herria haran txikiz inguratuta dago; labar eta monolito handi harkaiztsuak ageri dira sakabanatuta aipatu haranetan, ingurune bereziki ederra osatuz. Hainbat barrunbe egin ziren, barrunbe bakanduak, nahiz eta elkarren artetik oso hurbil. Haitzulo guztien artetik arreta berezia merezi dutenak bakarrik deskribatu dira.

Markiz herrian bertan, elizaren atzealdean, Askana gunean hain zuzen, zazpi haitzulo daude. Horietatik batek, 4 zenbakidunak, aurrealdeko horma besterik ez du kontserbatu, gainerako guztia hondoratu egin baitzen. Haitzuloaren oina angeluzuzena zen, hondoko

estas iglesias, tiene ábside de planta semicircular cubriéndose mediante bóveda de horno, así como una habitación lateral, con dos nichos excavados a ambos lados de la entrada a ésta. A lo largo de los pies de la nave existe un banco corrido. Son numerosas las sepulturas excavadas en suelo, así como otras dos en el exterior.

Quizá el conjunto más impresionante es el que forman los grupos de Santorkaria 11, 12 y 13. Grandes desprendimientos de la roca dejaron muy mutiladas algunas de estas cuevas. A pesar de ello siguen conservando un especial atractivo, encontrándose unidas las unas a las otras. La primera, la más occidental, es la que aún conserva una buena parte de su estructura intacta. Es un conjunto de al menos dos iglesias y otros tantos recin-

*10. haitzuloa Larrea inguruan (Markiz).*
*Cueva 10 en la zona de Larrea, (Marquinez).*





*12. haitzuloa Santorkarian (Laño).*
*Cueva 12 en Santorkaria, (Laño).*

horma erdizirkularra zuen eta ganga-formako sabaia. Haitzuloak, berez, ez du aipamen berezia merezi duen ezaugarririk, bai ordea bertan aurkitutako eta baxuerliebean landutako eskultura-multzoak: tamaina handiko eskulturak dira eta biluzik dauden bi pertsonaia irudikatzen dituzte. Pertsonaietako bat zaldi gainean ageri da, emakumeen antzera eserita, esku batean mazo itxurako objektu bat duela. Beste irudia, handiagoa dena, zaldiaren buruaren aurrean otoizlari baten antzera ageri da. Aipatutako eskulturei buruz egindako azken interpretazioaren arabera, Epona jainkosarekin erlazionatuta dago

tos de espacios de reunión o simplemente de habitaciones eremíticas. Su descripción pormenorizada y planos se pueden consultar en el CD-Rom interactivo. Son abundantes las huellas de mechinales, asas y entalladuras que indican construcciones adosadas y otros usos que se les dio a lo largo de los siglos. Numerosas sepulturas se distribuyen por los suelos de las distintas habitaciones, conformando un gran panteón colectivo.

Al final de todo este escarpe rocoso y ya por debajo del conjunto citado, una pequeña senda lleva a las dos últimas cavidades de la zona de Santorkaria.



*San Salvador haitzuloa (Markiz).*
*Cueva de San Salvador, (Marquinez).*



*Peña del Castillo haitzuloa. Larrea (Markiz).*
*Cueva en la Peña del Castillo. Larrea, (Marquinez).*

eskultura-multzoa (Epona jainkosak jatorri zeltarra du eta zaldiak babesten zituen jainkosa zen). Eskultura estaltzen zuen margo gorriaren hondarrak ikus daitezke oraindik. Kronologikoki, erromatarrak bertan izan ziren garaiaren amaieran egindako eskultura-multzoa da.

## Conjunto de Marquinez

Rodeando esta localidad, existen unos pequeños valles en los que escarpes y grandes monolitos rocosos se distribuyen por ellos, confiriéndoles una especial belleza. En ellos se excavaron una serie de cavidades, casi siempre aisladas, aunque próximas. De todas estas cuevas se mencionan aquellas que merecen una especial atención.

En el mismo pueblo de Marquinez, justamente detrás de la iglesia, en el término de Askana, existen siete cuevas. De una de ellas, la número 4, solo queda la parte frontal, por haberse hundido el resto. Su planta fue rectangular, con la pared del fondo semicircular, y su techo abovedado. Si la cueva no presenta unas características especiales, si lo tiene la existencia de un grupo escultórico en bajorrelieve, de gran tamaño, que representa a dos personajes desnudos. Uno de ellos monta a mujeriegas sobre una cabalgadura, portando en su mano un objeto maciforme. La otra figura, de mayor tamaño, está en posición orante delante de la cabeza del équido. La última interpretación identifica este grupo con la diosa Epona -de carácter céltico-, protectora de los caballos. Todavía conserva restos de la pintura de color rojo, que la cubría. Cronológicamente su origen se ha situado en momentos tardorromanos.

